

Irene Arin, Ana Alberdi eta Paul Arzanegi Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradu ikasleek irabazi dute Kimu Berri ematen duen Gradu Bukaerako Lan onenaren saria

2017/06/19

Pasa den ostiralean, ekainak 16, Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradu ikasleek beraien Gradu Bukaerako Lanak (GBL) aurkeztu zituzten. Aretxabaletako campusean izandako aurkezpenean parte hartu zuten ikasleek, tutore akademikoek eta enpresa eta erakundeetatik etorritako ordezkariak. Ekitaldian gainera, banatu zituzten GBL onenen Kimu Berri Sariak. Irene Arin, Ana Alberdi eta Paul Arzanegi ikasleek irabazi zuten lehiaketako lehengo saria, Gerra Zibilean, Otxandiok izandako bonbaketari buruzko lanarekin.

Aurten, enpresak eskatutako 16 proiektu egin dituzte Ikus-entzunezko Komunikazio Gradu 4. mailako ikasleek. Beste batzuen artean, hurrengo erakundeek zuzendu dituzte proiektuak: Debagoieneko Mankomunitatea, Orbea, Udalbiltza, Anai Artea, Arizmendi eta Haztegi ikastolak, Elkar Hezitzen ikastetxea eta Fagor Arrasate. Proiektu horiek guztiak egiteko, ikasturtean zehar *Design Thinking* metodologiarik buruzko prestakuntza jaso dute ikasleek eta tutoreek.

Saridunak

- 1. saria:** Ana Alberdi, Paul Arzanegi eta Irene Arin. (350 euro). Gaia: Otxandioko bonbaketa.
- 2. saria:** Maia Iribarne, Ane Aierbe eta Maddi Lasa. (300 euro). Gaia. Euskal historiaren oroimena.
- 3. saria:** Amaia Senperena, Irati Royo eta Asier Peña. (250 euro). Gaia. Aretxabaletako musika eskola.

- Aurkezpen ekitaldiko eta sari banaketako argazki galeria.



Kimu Berri 2017 lehiaketako irabazleak.